



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 24koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio eraginik gabe utz ditzala etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren etetea eta forma akats larriengatik behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli beharragatik sortutako zorra.**

### Aurrekariak

1. Erreklamatzaila etxebizitzarako prestazio osagarriaren jasotzailea da. Prestazio hori 2010eko azaroaren 24ko ebazpen baten bitartez eten zitzaion, eskatu zitzaion unean alokairua ordaindu izanaren agiriak ez aurkezteagatik. Etetea atzera eraman zen urtarrilaren 1era, eta ondorioz bidegabe jasotako zenbatekoengatik 2.500 euroko zorra sortu zen.
2. 2010eko uztailan, erreklamatzailak Gasteizko Udaleko Gizarte Prestazioen Informazio eta Izapide Bulegora jo zuen eta, bertan, 2010eko lehenengo seihilekoari zegozkion etxebizitzaren alokairuaren ordainagiriak aurkeztu zituen; ondoren, abenduaren 3an, bigarren seihilekoari zegozkionak aurkeztu zituen. Hil horretan bertan, prestazioari zegokion zenbatekoa ordaindu ez ziotela antzematerakoan, haren Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo zuen eta, bertan, esan zioten etxebizitzarako prestazio osagarria eten egin ziotela ez baitzituen egiaztatu 2010eko etxebizitzaren gastuak. Berriz ere ordainagiriak aurkezteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo ondoren, adierazi zioten bigarren seihilekokoak topatu zituztela, antza, galdu egin baitziren. Hala ere, ez ziren lehenengokoak agertu. Hortaz, haren betebeharra konplitu ez zuela ulertzen zen eta eteteak bere horretan jarraitu zuen. Prestazioa eteten dela dioen azaroaren 24ko ebazpenean 2.500 euroko zorra zuela jakinarazi zioten, hain zuzen, bidegabe jasotako zenbatekoak kobratzeagatik.
3. Horren inguruko informazio-eskaera bat gauzatu ostean, Arabako Foru Aldundiak honako hau esan zigun: *"en cuanto al periodo que se considera que el reclamante ha fallado en su obligación de presentar los recibos en plazo, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, institución competente, con fecha noviembre de 2010 realiza propuesta de suspensión de la citada prestación por no acreditar debidamente los gastos referidos a la vivienda o alojamiento habitual, retrotrayendo la fecha de la suspensión a 01/2010, lo que supuso la suspensión por parte de esta Institución, mediante Resolución de fecha 24 de noviembre, y la consiguiente reclamación de la cuantía abonada indebidamente"*. Beraz, ez da aipatzen zergatik eten zen etxebizitzarako prestazio osagarria bigarren seihilekoan zehar.
4. *Bestalde, etxebizitzarako prestazio osagarriaren 2/2010 Dekretuko IV. kapituluko xedapenak betez, aldundiari bidegabe jasotako kobrantzaren espediente berriaren inguruan galdetu ostean, erantzuna alde batera utzi*





zen. Bigarren informazio-eskaera bat bidali ondoren, horren bidez berriaz eskatu genituen bidegabe jasotako zenbatekoak kobratzeko jarraitutako izapideen gaineko datuak, horien garrantzia azpimarratuz. Izan ere, araudiak ezarritako ezarpena dela alde batera utzita, jasotzaileentzako berme handia da. Horrez gain, erreklamatzailerak eteteko ebazpena baino lehen alegazioak aurkezteko entzunaldiaren izapidea egin zezan jarraitutako izapideak eskatu genituen. Alderdi horiei erantzuna ematea alde batera utzi zen eta erreklamatzailerari alegazioak aurkez zitzan aldi bat emateko jarraitutako izapideak bakarrik aipatu ziren. "(...) en aplicación del Decreto 2/2010, de 12 de enero, de la Prestación Complementaria de Vivienda, en su artículo 24 "Suspensión del derecho" apartado 2.a 'cuando **no** se acrediten debidamente los gastos referidos a la vivienda o alojamiento habitual para cuya cobertura solicita la Prestación Complementaria de Vivienda' emite la correspondiente Propuesta de Suspensión, con fecha de efectos enero de 2010. La suspensión motivada por la causa anteriormente señalada no tiene regulado un trámite de audiencia, sino mas bien el propio recurso de alzada que procede tras la resolución definitiva. Por el texto del requerimiento cabe intuir que esa institución se refiere al procedimiento establecido en el artículo 25 de dicho decreto, que este caso está fuera de lugar el procedimiento (sic)".

5. 2011ko urtarrilaren 31n, erreklamatzailerak prestazioa berrabiarazteko eskatu zuen eta, baldintzak betetzen zituenez, berriro eman zitzaion otsailaren 1etik aurrera.

## Gogoetak

1. Lehenik eta behin, erakunde honek alegazioak aurkezteko epea emateak daukan garrantzia azpimarratu nahi du, hizpide dugun kasuan bezalakoetan garrantzi handia hartzen baitu. Izan ere, dagoeneko beteta dagoen betebeharrak -etxebizitzaren alokairua ordaindu- justifikatu behar da. Ildo horretan, Arabako Foru Aldundiak prozeduraren fase hori baztertu zuen, 2/2010 Dekretuko 31. artikulua araututakoa, bigarren berriazko paragrafoan honako hau dio: "*Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziotzako prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adieraziriko bizilekura igorrita, eta baita ere prozedurak oinarri dituen arazoak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak –33. artikuluan ezarritako epean berriazko ebazpenari ezak eragindakoak–, eta ebatzi eta jakinarazteko epea eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak, eta horiek guztia interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten*". Hortaz, araudiaren berriazko ezarpenei aurre eginez, erreklamatzailerak alokairua ordaindu izanaren ordainagiriak aurkeztu ahal izateko eta prestazioaren etetea saihestu ahal izateko entzunaldiaren izapidea ez zen aurrera eraman.





Horren harira, ez gatoz bat Arabako Foru Aldundiak entzunaldiaren izapidea ez egiteko beharraren inguruan duen iritziarekin. 2/2010 Dekretuko 31.2 artikulua ezarpenak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen ezarpenek, 84. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan honako hau ezartzen dute: *"Prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, interesdunei edo, dagokionean, beren ordezkariak prozeduren berri emango zaie, betiere, 37.5 artikuluan jasotako informazioak eta datuak salbuetsiz. Interesdunek gehienez hamabost egun dituzte eta gutxienez hamar, egoki irizten dieten dokumentu eta egiaztapenak alegatzeko"*

Beraz, uste dugu 30/1992 Legearen 62.1.e artikulua aplikatu behar litzatekeela: *" 1. Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta (...) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira"*, jurisprudentziak erabateko deuseztasuna kontuan hartzeko eskatutako baldintzak betez -hala nola, prozedurarik eza eta babesik gabeko egoera sortu- (adibide gisa, 2000. urteko urriaren 17ko AGE; 2002ko abenduaren 18ko AGE).

2. Bestalde, 2/2010 Dekretuko IV. kapituluko xedapenak betez bidegabe jasotako kobrantzaren ondotik espediente berria hasteko izapideei buruzko informazio-eskaerari erantzunez, erantzuna alde batera uzten da eta zorraren berri eteteko ebazpena jakinarazten duen idazki berean ematen dela bakarrik aipatzen da. Hala, ez da aipamenik egiten 2/2010 Dekretuko IV. kapituluan adierazten den bidegabe jasotako zenbatekoak kobratzeko prozeduraren gainean. Dekretu horren 35.2 artikulua berariaz honako hau dio: *"Prozedura hasitakoan, foru-aldundiak ondokoak jakinaraziko dizkio titularrari: prozedurari hasiera eman zaiola, oinarritzat dituen arrazoiak, izan ditzakeen ondorio ekonomikoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, eta 36. artikuluan ezarritako epean berariazko ebazpenik ezaren ondorioak. Interesdunek, hilabeteko gehieneko epean, egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ahalko dituzte"*, beste berme batzuen artean.,

Beraz, erakunde honek uste du, babesgabetasuna sortzen duen prozedura oso-osorik bete ez denez, 30/1992 Legearen 32.1 artikulua aplikatu behar litzatekeela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



**39/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 24koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari egina:**

Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren etetea baliorik gabe utz dezan eta, ondorioz, etenda egon den bitartean jaso ez duen zenbatekoa kobratzeko eskubidea onar diezaion.

Behar ez zirela jasotako zenbatekoak kobratzeak sortutako zorra baliorik gabe utz dezan eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentagatik jasotzen duen zenbatekotik kenduz ordainarazi zaion zenbatekoa itzul diezaion.

Oro har, hemendik aurrera alokairuen ordainketei lotutako agiriak aurkeztu izanaren egiaztagiriak ofizioz eman ditzan.

